


## IPARRALDEKO MENDIAK

ARABA

A.2

### Aizkorri



**Mendi-zerrenda zabal honek** Autonomia Erkidegoko gailur handienak hartzen ditu barmean, eta Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeen banaleroa osatzen du; izan ere, ezaugarri horrek eragin nabarmena du isurialdeen paisaia. Paisaia desberdineko bi eremu ditu: erliebe uhindun eta artzain-tradizioko Urkilla-Elgeako mendilerroak, eta Aizkorri-Aratzeko erliebe zorrotzak. Eremu honek bertako basoen eredu bikain eta zabala du. Gune altuetan, ehunka urtez ardi

latxaren artzaintzaren ondorioz sortutako belardiek hartzen dute basoen tokia. Aizkorri ondo kontserbatuta dauden habitatak fauna nabarmen baten babesba dira; izan ere, beste eremu batzuetan jada desagertutako hainbat espeziek bertan du aterpea. Eremu honek, gainera, balio handia du historia, kultura eta ondarearen aldetik, bertako ezaugarri baitira, besteak beste, San Adriango tunela eta galtzada, eta Arantzazuko Santutegia.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• Parke Naturala (2006) // IKT (Interes Komunitarioko Tokia).

### LANERAKO GAIK

- Euskal Herriko geografia: lurraldeen mugak, isurialdeen banaleroaren kontzeptua.
- Aizkorri hesi bioklimatiko gisa: bi isurialdeetako (Arabako lautada/Gipuzkoako haranak) kliman, landaredian eta giza jardueran duen eragina.
- Uraren ibilbidea mendigunean: Araia ibaiaren sorburua.
- Paisaia karstikoaren eredu bikaina: La Zeze.
- Abeltzaintzak modelatutako paisaia: larre-belardiak Aizkorriin.
- Landa-industriak: Meatze-trenbideak.
- Milaka urteko kudeaketa: Partzuergoak.
- Artzain-kultura: artzaintza eta transhumantzia Aizkorriin, iraganean eta gaur egun. Arantzazuko artzain-eskola.
- Elgeako parke eolikoa: energia berriztagarriak eta berriztaezinak.
- Ingurunearen gaineko eraginak: mendi-bideen eraikuntza.
- Europatik Donejakuera. San Adriango galtzada.
- Historia- eta arte-ondarea: Arantzazuko monasterioa. Euskal Arte Garaikidea.